

Guk sortu dugun proiektua haur hezkuntzaren munduarekin guztiz lotuta dago. Haurtzaindegi bat sortu dugu. Zerbitzu hau Galdakaoko Osakidetza Ospitalean eratu dugu, hura inguratzen duten langile eta erabiltzaile guztien eskura. Proiektua aurrera eramateko, 3 balio zehaztu ditugu, ezinbestekoak direnak bezeroak zaintzeko, haien beharretara egokitzeko eta gure zerbitzua ahalik eta aberatsena izateko; kontziliazioa, berritzailea eta pertsonalizatua.

1. Kontziliazioa: gaur egun garrantzia handia hartu duen kontzeptua da; lana eta bizitza pertsonala bateragarria egiteko modua sustatzea esan nahi duena, eta guk hura bultzatu nahi dugu. Ospitaleko erabiltzaile zein langileei (Haur, tutore, guraso, sanitario, garbitzaileak, auxiliarrak....)zuzendutako eta moldatutako zerbitzu bat izango da, ospitaleetan langungarria izango dena. Bertan, ospitalea inguratzen duten langile zein erabiltzaile edo gaixoei laguntzen saiatuko gara.

Langileen kasuan, lanordu oso estuak dituzte; askotan gaueko txanda egin behar dute, bi lanordu sartzen dituzte jarraian, “guardiak” egin behar dituzte, ordu askoko estresa suposatuz. Ondorioz zailtasun handiak dituzte kontziliazioa mantentzeko, izan ere, ez dute aukerarik haien familiarekin kalitatezko denbora pasatzeko. Horren ondorioz, lana egiteko gogoia galtzen dute, estresa ager daiteke, baita antsietatea, eta horrek haien bizi pertsonalean eragiteaz gain, ospitalean dauden pazienteei eragin ahal die.

Beraz, langungarria izango litzateke guraso moduan haurra hurbil izateko aukera, harengandik metro gutxira haurtzaindegi bat izanez, alde batetik kontziliazioa hobetzeko; langilearen zein pazientearen bizitza pertsonala eta egoera laborala bateratzeko eta horren aurrean haurraren ongizatea bermatzeko.

Erabiltzaileen kasuan, gurasoak esaterako, urgentzia bat izanez gero, edo zerbaitengatik ospitalera joan behar badira eta ez dute haurra inon uzteko lekurik ezta baliabiderik, edota bisita bat egitera badoa eta haurra gaixoaren logelara sartzea ez badu nahi, lasaitasuna izango du alde zuzenetik badakielako haurra gure haurtzaindegian utzi dezakeela. Horrek ere haien kontziliazioan lagundu dezake.

2. Pertsonalizazioa: Zerbitzu hau guztiz pertsonalizatua izango da, orduetara bereziki pertsonalizatuak jarriko ditugu pazienteei eta langileei egonaldia errazteko, Honekin esan nahi dugu, eman daitekeen edozein kasuren aurrean gure zerbitzua pertsona

orori pertsonalizatuko zaiola, plangintza bat eginez, eta kasu bakoitza behatuz eta egokituz.

3. Berritzailea: Zerbitzu hau, oso berritzailea da, Europan ez da oraindik martxan jarri, kanpoko herrialde batzuetan bakarrik. Bada egia lantegi edo enpresa batzuetan haien langileentzat haurtzaindegi bat ahalbidetzen dela, baina gure zerbitzua hortik haratago doa.

Izan ere, Amerikako Estatu Batuetan jada existitzen dira haurtzaindegia eta ospitalea bateratzen dituzten tokiak. Bestalde, Euskal Herrian 2007.urtean ideia planteatu zen, baina ez zen ezer zehaztu. [Albistea](#)

Beraz, aukera paregabea da horrelako proiektu bat martxan jartzeko, eta Osplayn, urrats bat aurrerago joatea erabaki dugu. Gure ustez iraultzailea eta oso beharrezkoa den proiektu hau abian jarritz.